

John Fogerty, Brian Wilson eta Suzi Quatro eta Incubus, Azkena Rock Festivalaren baieztapen berrien buru

- Rock festival nagusiak Creedence Clearwater Revival eta Beach Boys taldeen buruak batu ditu
- Baieztapen berrien artean Suzi Quatro eta Incubus taldeak daude, eta berauek ikusteko data bakarrak dira penintsulan
- Horiez gainera, Baroness, Robyn Hitchcock & Los del Huevos Band, Shooter Jennings, The Wildhearts, Derby Motoreta's Burrito Kachimba, Tahures Zurdos, Petróleo, DeWolff, Ray Collins' Hot Club, Wicked Wizzard eta The Adicts taldeak arituko dira Mendizabalan

Gaur 16 izen gehitu dira Azkena Rock Festivaleko kartelean. Aurtengoa 19. Edizioa izango da eta 2020ko ekainaren 19an eta 20an antolatuko da Mendizabalan (Gasteizen).

Zaila litzateke **John Fogerty** izendatu eta 'Proud Mary', 'Born on the Bayou' edo 'Who'll Stop the Rain'-n ez pentsatzea. Gutxienez Creedence Clearwater Revival bezalan ez pentsatze bezalaxe: zazpi urteko ibileratxoa izan arte, mende t'erdi geroxeago bizirik dirau. Erantzuna Fogertyk berak eman zuen bere izeneko lanean: "Wrote a song for everyone". Horixe bera egiten ibili da 50 urtetan zehar, abestiak edonorentzat idazten, alegia. Zorionez, Azkena Rock Festivala gustuko du Fogertyk eta bigarren aldiz arituko da bertan.

Brian Wilsonek herri-musikaren zenbait abesti sortu ditu. Esandakoarekin hurrengo paragrafora salto egin genezake. Azken batean, zer esan dezakegu 'Pet Sounds'-en sortzaileaz? Espainiako editoreek Wilsonen autobiografiari "Ni Brian Wilson naiz... Zu ez" izenburua jarri diote. Wilsonen Good Vibrations Tourra ekarriko du gurera Beach Boyseko Blondie Chaplin eta Al Jardinerekin.

Suzi Quatro Joan Jett, Chrissie Hynde, Debbie Harry edota Patti Smith bera baino lehenago egon zen, eta 2020an Smithekin berarekin elkarbanatuko du kartela hurrengo ARFea. Historiako lehenengo emakume rockstarra dela diote. Bi Kim-ak baino lehenago egon zen ere Quatro: Deal eta Gordon. Bere garaian ez zuten behar bezala estimatu. Bi hamarkada ostean, Riot mugimendua zela eta erreskatatu zuten, eta urte berean Suzi Q dokumentala kaleratu zuen Liam Firmagerrek. Artistaren garrantzia eztabaidaezina da, hainbat neska rockeroen generazio inspiratzeaz gain, konposaketa, aktore eta poeta-lanak burutu baititu. Gasteizen eskainiko duen kontzertua gure lurraldean eskainiko duen bakarra izango da eta "ni bertan izan nintzen" esango dugu, ez bairik gabe.

Incubus beste baieztapen garrantzitsua dugu. Streaming plataformen garaian murgilduta, musikaren inpaktua milioika eta ehunka milioi erreproduzioetan neurtzera ohitu gara eta Incubus taldearen abesti asko bertan kokatu beharrekoak

dira. Hala ere, ez dago euren errepertorioa zuzenean ikustea bestekorik: 90. Hamarkadatik hasita duela bi urte kaleratutako 8ra artekoak. Gure lurraldean ARFea baino ezin izango ditugu ikusi.

Drive-by Truckers gure lurraldera bueltatuko dira hamar urte pasa eta gero urtarrilean kaleratuko duten *The Unravelling* diskoarekin. Drive-by Truckers XXI. Mendeko ipar-ameriketako hegoaldeko rockaren erreferentzia eztaba daezina dugu. Ez genuen *American Band* (2016) zuzenean ikusteko aukerarik izan, Donald Trumpen presidentzia kanpainaren garaian egonik Estatu Batuetan gertaera latzak eta biolentoak gertatzen ari ziren garaikoa, alegia. Zer kontatuko digu disko berri honek Trump Etxe Zurian lau urte eman ostean? Zuzenean ikusteko irrikitan gaude.

Britainia Handitik datoz **The Adicts**, punk britainiarraren talde esanguratsuenetarikoa (eta zaharrenetarikoa, dagoeneko). 1975etik formazio berbera izateaz gain, disko berria publikatu dute: *And it was so*. Denbora tarte honetan Kubricken "La Naranja Mecánica" filmaren estetika mantendu dute Keith "Monkey" Warren abeslariaren magnetismoarekin batera "Gora Iraultza!" aldarrikatuz. The Adicts taldea festibalean ikusiko baduzu, zaude ziur esperientzia bakarra, dibertigarria eta ahaztezina biziko duzula.

Ez dakigu **Shooter Jennings** taldeak oholtzan egiten duena Nasvillen ikasi duen edota euren gurasoen biretako furgonetan: Waylon Jennings countryko kondaira eta Jessi Colter abeslaria. Estatu Batuetan generoko talde miretsia dugu, eta European kontzertu asko eskaintzen ez badituzte ere, ARFea eskainiko dutena paregabekoa izango da.

Gold & Grey boteretsua esku artean, **Baroness** taldea gurera dator, metal garaikideko talde erraldoia, kritika eta ikus-entzuleak konbentzitzeko ahalmena duen horietakoa. Dave Fridman bera izan da diskoaren grabaketa zuzentzeaz arduratu dena (Mercury Rev, Flaming Lips). Azkeneko kontzertuan Gina Glison kitarjole berria ezagutzeko parada izango da.

Robyn Hitchcock ohikoa dugu gure eszenatokietan, baina ez formatu elektrikoan ez eta abagune honetarako prestatutako formazioan, *Los del Huevo Band* abizenarekin. Musikaz mintzatzea rockaz, postpunkaz, psikodeliaz... hitz egitea da eta bere letraz hitz egitea, umoreaz, surrealismoaz eta poesiaz aritzea. Bob Dylan miretsi arren, bere DNAn gene britainiarra dauka eta Keatsen lirismoa zein Monty Phytonen zentsurik gabeko umorea topa daiteke.

The Wildhearts Erresuma Batutik datozte. Aurten disko berria kaleratu dute: *Reinassance Man*, eta Madrilen sekulako arrakasta eskuratu ostean ARFera etorriko dira euren lana defendatzera.

Hamarkada bat daramatzate lanean **DeWolff**eko mutilak eta dozena t'erdi lan publikatu badituzte ere, pasa den urtera arte ez dira hain ezagunak egin. Agian talde holandar honek Led Zeppelin bezalako taldeak gogora ekarriko dizkizu. Pasa den urtean Espainiako birako hainbat kontzertu bertan behera utzi behar izan zituzten

teklistaren osasun egoera zela eta. Oraingo honetan zuzenean ikusteko aukera izango dugu, otsailean zehar estatuko hiru saletan kontzertuak eskaini ostean.

Ray Collins' Hot Club artista suntsitzaile, zoro, ikaragarria eta itzela dugu. Horrela definitzen dituzte kontzertuetako kronikek. Alemaniarrak gupidarik eta erreperitoririk gabe igotzen dira oholtzara. Europako big band harrigarriena delako izango ote da?

Estatu mailako baieztapen berrien artean **Derby Motoreta's Burrito Kachimba** dugu. Izen gero eta ezagun honen atzean andaluziako rock eta psikodelia nahasten duen konboa dugu. Zuzeneko paregabea eskainiko dute, eta horiekin batera **Petróleo**ko lotsagabeak datoz, Igantius Farray punk-komikoak gidatutako taldea.

Diskorik gabe baina ausardiz beteta **Wicked Wizzard** etorriko dira Azkena Rock Festivalera Mungiatik, Bilbo Hiria Pop-Rock lehiaketako Rock saria irabazi ostean. Eurekin batera Rock Party lehiaketako talde irabazle biak izango ditugu. 400 taldek izena eman dute rockaren lehiaketa honetan eta bertan parte hartzeko epemuga abenduaren 20an izango da (informazio gehiago hemen).

Estatu mailako atalarekin bukatzeko, luxuzko hitzordua daukagu **Tahúres Zurdos** taldearekin. Aurora Beltránen taldea oholtzetara bueltatu da eta ARFea gonbidatu bereziren batekin egongo dira.

Izen hauek Azkena Rock Festivalaren aurreko baieztapenetara gehituko dira: **Patti Smith & Band, Social Distortion, Fu Manchu, L7, Reverend Horton Heat, The Steepwater Band** eta **The Faithless**.

Festibalak, gainera, jaialdi-esparrutik bost minutura kokatuta dagoen kanpinean lekuak erreserbatu daitezke iragarzten du. Horrez gain, egunean bertan antolatuko dira festibalerako bidaiak hainbat herri eta hirietatik. Sarrerak salgai daude (baita epeka ere) www.azkenarockfestival.com webgunean.

Azkena Rock festival
2020ko ekainak 19 eta 20
Mendizabala, Gasteiz

JOHN FOGERTY
BRIAN WILSON "GOOD VIBRATIONS TOUR" feat. BLONDIE CHAPLIN & AL JARDINE
PATTI SMITH & BAND
SOCIAL DISTORTION
SUZI QUATRO
INCUBUS
DRIVE-BY TRUCKERS
L7
FU MANCHU (30TH ANIVERSARY)
REVEREND HORTON HEAT
SHOOTER JENNINGS
THE ADICTS
BARONESS
ROBYN HITCHCOCK & LOS DEL HUEVOS BAND
THE STEEPWATER BAND
THE FAITHLESS

THE WILDHEARTS
DERBY MOTORETA'S BURRITO KACHIMBA
TAHÚRES ZURDOS
PETRÓLEO
DEWOLFF
RAY COLLINS' HOT CLUB
WICKED WIZZARD

Bonua: 105€

Bonua + kanpina: 120€

Epeka eskuragarri

Salmenta: azkenarockfestival.com

PREZIO-ALDAKETA: URTARRILAK 14

Kutxabankeko 15€ko beherapena lehen 600 bonoei ezarriko zaie, eta txartel bakoitzak bonu bakarra erosi ahal izango du. Beherapena momentuko prezioari ezarriko zaio. Kutxabankeko zerbitzu anitzeko kutxazainetan eta www.kutxabank.es -en eskuragarri.